

Kirol-politika, jokia ala jolasa?

Juan Aldaz Arregi

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia eta
Gizarte Langintzako irakasle atxikia

Jarraian aurkezten den artikulua honen helburua, bereziki, erakunde lokaletan, Erakundeen Ebaluatze eta Ikaskuntza Gaitasun Eraikuntzaren bitartez ebidentzietan oinarrituriko kirol-politika bat sustatu beharra azpimarratzea da. Zentzu horretan, badirudi, kirolak nolabaiteko paper anbibalentea jokatzen duela gure gizarteetan zeren, guztirako balio baitu eta ezertarako ez baitu balio, edo beste modu batean esate aldera, paper zentral bat izatetik hutsaren hurrengoia izatera pasatzen ari da egun bizi dugun kontingentzia sozioekonomikoan, lehenengoetarikoa izaten ari baita murrizketak pairatzen. Beharbada ez du guztirako balio, ez behintzat hala moduz, baina bai askorako gizarte baten garapenean estrategikoak diren osasuna, kohesioa eta antzeko dimentsioak landu eta garatze aldera. Kontua da, zenbateraino kapaz garen kirol-politikak dimentsio horiek garatzerako orduan egiten duen, edota egin lezakeen, ekarpena ebidentzia bitartez adierazteko. Azken batean, kirolaren politika joko modura ala jolas modura ulertzen dugun argitzea premiazkoa dugula aldarrikatzen da artikulua honetan, inolako ezbairik gabe asko baitugu galtzeko gizarte modura kirol-politika, eta haren *governantza*, serio hartzen ez dugunean.

GAKO-HITZAK: Ebaluazioa · Kirol-politika · Governantza · Egitura likidoak.

Sport Policy, a game or a sport?

The aim of this communication is to emphasize the need to promote evidence based policy in the sport system through the capacity building to evaluate and learn of local institutions. In this sense, it seems that sport has an ambivalent role in our societies because it goes from being a useful tool to a useless tool depending on socio-economic contingencies (see the reduction in its budgets). Sport may not solve all problems, but we are sure that sport can play an important role in the development of any society strategic dimensions such as health, integration, etc.. The question is whether or not we are able to measure the real contribution that sport makes to these dimensions. In short, we believe it is vital to clarify the meaning we give to the sports policy since, what is certain is that failure to take seriously its governance, we have much to lose.

KEY WORDS: Evaluation · Sport policy · Governance · Liquid Organizations.

Jasotze-data: 2013-05-06. *Onartze-data:* 2013-07-19.

Sarrera

Jarraian aurkezten dugun artikulua izenburuak galdetzen duen moduan, kirol-politika joko ala jolas modura ulertzen dugun argitu beharra dago lehen baino lehen. Zulaikak (2003) bertsolaritzari buruz egindako «Bertsolariaren jokoa eta jolasa» gogoetan bezala, kirol-politikaren joko ala jolas izaera argitu beharraz mintzo garenean, kirol-sistemaren barruan zeresana duten eragileek partekatzen duten arduraz mintzatu beharra daukagu.

Susmoa dut, hainbat eta hainbat esperientzia tarteko, kirol-arloan politika egiteko garaian, hainbat eta hainbat politikarik jolastoki moduko bat ikusi dutela bertan. Beste modu batean esate aldera, ez dut uste serioegi hartu dutenik kirolak ezkututzen dituen onuren azterketa, ez eta haien balioestea. Azken batean, nor jar lezake zalantzan kirola ona dela, bere horretan, besterik gabe?

Kontua da, ordea, hain ona omen zen (eta den) kirol-politikaren garrantzia beti dagoela kontingentzia ekonomiko eta politikoen mende eta, gainera, hori gutxi balitz, borondate oneko politikari nahiz teknikari askok, beren fede onenarekin, oparoaldietan ebidentzia askorik gabe kirol-programak sustatu dituzten moduan, krisi-garaietan ere, inolako ebidentziarik gabe eta kezkarik gabe, bertan bera uzten dituzte.

Laburbilduz, badirudi kirolaren onuren mitologia antzeko batean mugitu izan garela kirola interes-esparru dugun eragileak, hasi politikariengandik ikertzaileen-ganaino, kudeatzaile eta teknikariengandik pasatuz, bereziki guztiontzako kirol parte-hartzeaz ari garenean (Nicholson eta besteak, 2011).

Laburki deskribaturiko panorama honen aurrean, gure ustez, eta Coalter-ek (2007) esan bezala, ezinbestekoa da kirol-politikaren inguruko handinahikeriak murriztea eta are eta efektiboagoak egitea, lehenik eta behin, kirola bera *desmitologizatuz*. Horretarako, lehenik eta behin, argi eta garbi geratu beharko litzateke kirolak ez duela guztirako balio, askorako bai, baina ez gizarteko arazo guztietan ekiteko. Berriro ere Coalterrengana bueltatuaz, beharbada interesgarria litzateke zer kirol, zer baldintzatan, zer ondorio eta zeinentzako galderen erantzunean sakontzen hastea eta ez, besterik gabe, kirola ona delako definizio zabalean gelditzea. Aurrerapauso hori egingo bagenu, asko aurreratuko genuke kirol-politika serioago hartzeko garaian eta, behingoagatik, gizarte-arazoetan egin dezakeen ekarpen zehatza argitzeko garaian.

Azken batean, egia bada ere kirola, edo hobekiago esanda, kirol-politikak arazo sozial askotan eragiteko erreminta izan daitezkeela, hori ez da nola hala lortzen kirola praktikatzeko hutsetik (Nicholson eta Hoye, 2008). Esaterako, kirol-politikek egiaz osasun fisikoa hobetzea, estresa, autokontzeptua eta bestelako arazo psikologikoak hobeto kudeatzea, edota kohesio soziala areagotzeko kulturartekotasuna, hezkidetzeta eta integrazioa lantzea badute helburu, horiek lantzeko moduak argitu beharko lirateke kirola bitarteko duten politika zein programetan, bestela, kirolak arazo horiek murriztu zein areagotzeko balio baitu.

Baina nola heldu erronka horri?

Kirolaren izaera likidoa kudeatzeko...


Argian, lehenik eta behin, kirolaren izaera bera ezagutzetik has gintezke. Zentzu horretan, egia bada ere ikusmolde ugari daudela kirola deskribatu eta aztertzeke garaian, gure planteamenduan, kirolak izaera likido bat duela defendatzen dugu. *La Práctica de Actividad Física y Deportiva (PAFYD) de la población adulta de Gipuzkoa como Hábito Líquido* (Aldaz, 2010) tesi-lanean argudiatu bezala, kirol-praxia testuinguru likido batean (Bauman, 2004) modu jarraitu batean (ber)erakundetzen delakoan gaude.

Laburki esanda, behin gizakion izaera aktiboa aitortuta (*Homo Impiger* garela ezer baino lehenago aitortuta, hau da, mugitzeko diseinatuak gaudela aitortuta, alegia) tesiak izaera konplexua bezain bizia duen kirol-praxien (ber)erakundetze-dinamikari egiten zion so, dibertsifikazioa joera nagusi modura gailendu den kirol-sistema garaikidearen markoan. Puig eta Heinemann-ek (1991: 125) esan bezala, «kirolak sistema autonomoa izateari utzi dio, hezkuntza, ekonomia eta politika bezalako sistemekin estuki konektaturiko nortasun propio eskaseko sistema ireki bilakatuaz».

Hargatik, kirol-praxiaren (ber)erakundetze-dinamika ulertzeko modu egokiena, hura atomo modura irudikatzea zela pentsatu genuen (ikusi 1. irudia), non:

- a) Nukleoan kirol-modalitate klasikoak aurkituko liratekeen, erakundetuak, inpaktu mediatiko handiena dutenak eta, azken batean, errekonozimendu sozial handiena duten modalitateak eta beren kirol-izaeraren inguruan duda izpirik pizten ez dutenak (modu antolatu eta konpetitiboan maila guzietan praktikatuak COIk aitorturiko kirol-modalitateak).
- b) Atomoaren inguruan, geroz eta distantzia handiagokoan, erakundetze-maila txikiagoko modalitateak aurkituko genituzke bi talde handitan multzokatuak: nukleotik hurbilen dagoen kapan *semi-erakundetuak* modalitateak aurkituko lirateke, hau da, modalitate erakundetuak arauak eta jardute moduak partekatzen dituzten modalitateak baina jolas modura praktikatuak.

1. irudia. Kirol-modalitateen (ber)erakundetze-dinamikaren metafora atomikoa.




- c) Atomotik aldenduen dauden kapetan kirol-modalitate *para-erakundetuak* aurkituko lirateke, hau da, berriki sorturiko modalitateak, apenas erakundetuak edo nazioarteko errekonozimendu ofizialik ez dutenak. Hainbatetan

erakundetutako praxien ondoan ematen direnak, beste batzuetan marjinar eta, baita, kontra ere praktikitzen direnak.

Hori, gainera, kultura osatzen duten bestelako praxiekin lotua ulertu beharko litzateke, harreman dialektiko batean, jarraian irudikatzen dugun moduan (ikusi 2. irudia).

2. irudia. Kirol-modalitateen (ber)erakundetze-dinamikaren metafora atomikoa kultura osatzen duten bestelako praxi sozialekin duen harremanean.



Berreraikuntze-dinamika bizi hau, laburki esanda, hiru azpiprozesuren emaitza litzateke (ikusi 3. irudia): (I) teknifikazioa, (II) akulturazioa, eta (III) (ber)eraikuntza-erakundetzea azpiprozesuak, hiruak ere, modu dialektikoan elkarri eraginda leudeke.

3. irudia. Kirol-jarduera (berrien) (ber)eraikuntza-erakundetze dinamika (Aldaz, 2010).



I. *Teknifikazioak*, besteak beste, kirol-jarduera ezberdinetan eragin du modu estentsibo (geroz eta jende gehiagoren eskura jarriaz kirol-jarduera ezberdinak —persona minusbaliatu zein hirugarren edadekoen eskura, esate baterako—) zein intentsibo batean (kirolaren zein pertsonen markak eta mugak gaindituaz), kirol-jardueren potentzialtasunak eta faktikotasunak areagotuz.

II. *Akultrazioa*, bestalde, kirol-jarduera ezberdinen hedakuntza globalizatuan eta harrera lokal ezberdinetan islatu da. Honen adibideak ugari lirateke baina, batzuk aipatze aldera, futbola (Britainia Handian sortua), surfa (Hawain sortua), parkourra (Frantzia sortua), besteak beste.

III. *(Ber)eraikuntza-erakundetzeak*, berriz, jarduera batzuk zer-nola eraiki, berreraiki eta, kasu batzuetan, erakundetzera ere iristen diren erakusten digu. Prozesu honek, azken batean, kirol-jarduera ezberdinen birsorkuntza-dinamika eta, nola ez, izaera historikoa azpimarratzen ditu.

Nolanahi ere, argi dagoena da kirolak izaera bizia bezain aberatsa duela eta, ezbairik gabe, gizarteko bestelako sistemekin lotura estua bezain konplexua duela.

Halaber, badirudi nukleoa bera kolokan jartzen dela, geroz eta gehiago, *para-erakundetutako* modalitate ezberdinen sorrera edo/eta berpizteagatik. Zentzu horretan, lan honen helburua ez bada ere, berebiziko garrantzia hartzen duite bizi-estilo kirol bezala (Wheaton, 2004) definitzen diren modalitateak (surfa, skatea eta parkourra, besteak beste), kirolak nortasun indibidualaren eraikuntzan jokatzen duen paper berria bezain garrantzitsua mahi gainean jartzen baitu.

Izaera hori aitortuta, has gintezke modu konstruktiboago batean kirol-politiketan eragiten.

...egitura likidoen beharra

Gure iritziz, kirolaren errealtate likidoa aitortuta, haren gaineran politikoki modu eraginkor batean eragin ahal izateko ezinbestekoa da egungo egiturak baino malguagoak diren batzuk (ber)sortzea, *egitura likidoak* sortuaz.

Zentzu horretan, Preskill eta Torres-ek (1999a) dioten moduan, irmotasun eta iragargarri sentsazioa ematen zuten antolakuntza-egitura tradizionalak desagertu egin dira, garrantzia erakundeen eta hango kideen beharrei geroz eta arinago egokitu lekizkiekeen prozesu fluidoaren beharrez jartzen delarik.

Gure ustetan, Preskill eta Torres (1999a eta 1999b), Preskill eta Boyle (2008), edota McDonald, Rogers eta Kefford-en antzera (2003), besteak beste, ikaskuntza-kultura bat sortze-bidean erakundeen ebaluatze gaitasuna garatu beharrez oinarritzen da, ebaluatzea, esperientziatik ikastea bezala ulertuta etorkizuneko jarduerara hobetze aldera. Zentzu horretan, gainera, azpimarratu behar da testuinguru likido honetan ikaskuntzek duten behin-behinekotasuna eta, ondorioz, kritikotasuna edozein esku-hartze politikoren efizientzia baloratzerako garaian. Jada ez dute balio kontzienteki nahiz inkontzienteki despotismo ilustratu batean oinarritzen ziren garai bateko politika egiteko moduek, ez eta ezagutza zientifikoa sortzeko moduek ere.

Europar Komisioko politika erregionaleko zuzendaritzak argitaraturiko *Evalues* gidan aipatzen den moduan (1999), guk ere uste dugu ebaluazioaren eta ikaskuntza-kulturaren garapena ezin dela izan konponketa estruktural puntual bat bakarrik, politika egiteko modu bat baizik, non:

- hobekuntza- eta ikaskuntza-lezioekin konpromiso bat dagoen;
- ikaskuntzarako animoa kentzen duen erruaren kultura ekiditen den;
- politikarien aldetik, ebidentzietan oinarritutako politikagintzarekin, bere zentzu zabalenean ulertua, konpromiso bat dagoen;
- halaber, bikaintasunarekin konpromiso bat dagoen, estandar gorenenekin eta etengabeko hobekuntzarekin;
- ebaluatzea gardentasunerantz eta kontuak emateko mugimendu zabal baten baitan erreminta gako modura baliatzen den; eta
- gobernuak eta sektore publikoak ikaskuntza-erakundeetan bilakatzeko egokitzapen jarraitu bat egiteko konpromisoa hartzen duten.

Gure ustetan, planteamendu honen garrantzia argi eta garbi laburbiltzen da esaera honetan: norbaiti arrain bat ematen badiozu, egun batez jango du, baina, arrantzan erakusten badiozu, bizi osoan jan ahal izango du. McDonald, Rogers eta Kefford-ek (2003) baliaturiko alegoria horrek argi eta garbi erakusten du Erakundeen Ebaluatze eta Ikaskuntza Gaitasun Eraikuntzaren interesa, azken batean, haren helburua, ikaskuntza eta etengabeko hobekuntza bermatze aldera, ezin baita kanpo-ebaluazioen erabilera sustatzera mugatu. Azken helburuak haratago joan beharko luke, haiek enkargatu, kudeatu eta erabiltzera iristeraino, sortzen den ezagutza modu eraginkor batean baliatuaz erabaki-hartze geroz eta egokia- goak garatze aldera.

Egitura likido hauek, aipaturiko kirol-*praxiaren* (ber)erakundetze-dinamikaren metafora atomikoari jarraiki, errealitate honi erantzuteko kapaz diren erakunde eta egiturak izan beharko lirateke, gauzek nola funtzionatzen duten jakiteaz gain (*know-how*), zer dela-eta horrela funtzionatzen duten ere badakitenak (*know-why*) ahalik eta hobekien errealidadera egokitzeko eta hura eraldatzeko.

Zentzu horretan, paradigma-aldaketa baten beharraren aurrean gaudela iruditzen zaigu, non Erakundeen Ebaluatze eta Ikaskuntza Gaitasun Eraikuntzak (aurrerantzean EEIGE) (Preskill eta Torres, 1999a) paper zentral bat jokatu beharko lukeen, erakunde ikaskuntzaren garapenaren bitartez, egitura likido bilakatzeko bideari ekin nahi dioten erakunde eta egituren kasuan. Bestela esanda, Erakundeen Ebaluatze eta Ikaskuntza Gaitasun Eraikuntza emergentzia bezala definitu dugun garai baten aurrean aurkitzen garela uste dugu (Aldaz, in Aldaz *et al.*, 2013). Emergentzia, gainera, bere bi adieratan ulertuta:

- Lehenengo adiera batean ulertuta, hau da, azaleratze bezala ulertuta, Europar Komisioak abian jarritako ekimenak (1999, 2007 eta 2011) azpimarratu behar dira, argi eta garbi erakusten baitigute erakunde publikoak ebidentzietan eta ebaluazioan oinarrituriko Europa mailako kirol-politikaren *gobernantzari* garrantzi berri bat ematen hasi direla.
- Bestalde, bigarren adieran ulertuta, hau da, larrialdi bezala ulertuta, iruditzen zaigu berandu baino lehen heldu beharko litzaiokeela politikagintzan ebaluazioaren kultura garatzeari, are gehiago, kirol-politikagintzan gertatzen den bezala, ebaluazio-tradiziorik ez duten politiketan, lehen baino lehen Pawson-ek (2006) aipaturiko ebidentzietan oinarrituriko politikagintzarantz jotze aldera.

Aldaketa hori gardentasunean, herritarren parte-hartzean eta ikaskuntzan oinarritu beharko litzateke, azken batean, kirol-politiken erabilera eraginkorra interes-taldeen partaidetza (faktuzkoak nahiz potentzialak izan) bermatzearen mende baitago (Patton, 2008). Are gehiago, partaidetza hori eraginkorra izate aldera, interes-taldeak onuradun izan litezkeen kirol-politiken diseinu, inplementazio, segimendu eta ebaluazio-faseetara hedatu beharko litzateke. Azken helburua herritarrak erabaki politikoen partaide eta arduradun egitea baita, harreman dialogiko (Habermas, 2001) bat bermatuaz.

Horrek, halaber, kirol-politiken *governantza*-eredu berri bat exijitzen du, hau da, geroz eta konplexuagoak eta dinamikoagoak diren testuinguruetan erakunde publikoen, merkatuaren eta gizarte zibilaren harreman-eredu berri baten garapena interes orokorraren definizioan. Halaber, *governantza* politika publikoen diseinu eta inplementazioan gobernuz kanpoko eragileen inplikazio handiagoarekin identifikatzen da interes orokorra bermatzen aldera, Cerrillo i Martínezek (2005: 9) esan bezala.

Egitura likidoak, funtsean, beren helburuei erantzuteko kapaz diren egiturak lirateke. Hau da, bere helburuak lortzeko lanean, helburuetara egokitzen direnak eta ez alderantziz, helburuak beren aukeretara mugatzen dituztenak egun hedatzen den kirol *indi-gestioa* (Dorado, 2012) ekidinez. Horregatik, ezinbestean, beraiek kokatzen diren testuinguruaren inguruan, eta horretan duten kokapenaren inguruan, *kontziente* izan behar dute.


Beste modu batera esanda, egitura likidoek, oro har, eta kirol-egiturek, konkretuki, egitura *kontzienteak* eta *kontzientziatzaileak* izan behar dute. Kontzienteak, gorago esan dugun moduan, kokatzen diren testuinguruaren inguruan, eta bertan duten kokapenaren inguruan, kontziente direlako; baina baita *kontzientziatzaileak* ere, partekatzen dituzten sistema eta helburuekiko harreman zuzena, edo/eta zeharkakoa, duten eragileak ere kontzientziatu behar dituztelako.

Azken baten, egitura likidoak, *aliantzak* sortuko ditu beste eragileekin modu dinamikoago batean, helburuak partekatzen dituzten heinean eta, noski, partekatzen dituzten helburu horiekiko ebidentziak eta informazio esanguratsua ere partekatzen den heinean. Zentzu horretan, jada, argi eta garbi geratzen da ezinbestekoa egiten dela egundaino erabili diren egiturak (federazioak, klubak, elkarteak eta abar) birpentsatzea.

Kirol-politikaren gure testuingurua esplikatzeko, atomoaren metaforara bueltatuaz (ikus 4. irudia), argi eta garbi ikus liteke EEIGE prozesuaren dinamikan egitura likidoen sorkuntzan eta mantentzean erakunde politiko lokalek (udalak bereziki) jokatu beharreko paper zentrala, nukleoaren baitan kokatuko bailirateke. Nola bestela? Beraiek helduko liokete EEIGE prozesu amaigabearen lidergoari ebidentzietan oinarritutako politika bat garatze aldera. Beren azpiegituren EEIGE dinamikak sortzeaz gain, kirol-politikari dagokionez, aliatuak izan litezkeen kirol-eragileak detektatu (haien existentziaz eta izaeraz kontziente izan) eta aliantzak eta sinergiak sortzeko garaian lidergoa izan partekatzen duten ardura politikoaren kontzientziazioan.

Zentzu horretan, gainera, aipatu bezala, *eragile erakundetu* (federazioak, klubak eta eskolak, besteak beste), *semi-erakundetu* (baliabide publikoz lagundutako kirol-elkarteak eta asoziazioak) eta *para-erakundetu* (baliabide publikorik ez duten kirol-eragileak) aliatu-izaera dinamikoagoa litzateke, azken batean, partekatzen dituzten helburu komunetan alde lan egiten duten ala ez, eta EEIGE prozesuaren parte-hartzeak baldintzatuko bailuke izaera hori.

4. irudia. Kirol-sistema lokal baten EEIGE dinamikaren metafora atomikoa.



Inolako zalantzarik gabe, prozesu hau, konplexua bezain emankorra izan daiteke eta, hastapenetan bidean traba asko suerta daitezkeen arren, esparru politikoan mugitzen ari baikara, epe ertain eta luzera *erabaki-hartze politiko informatu, hau da, ebidentzietan oinarrituriko erabaki-hartze politikoari begira* (Pawson, 2006) eta *erakunde-ikaskuntzari begira* eman ditzakeen onurek merezi dutelakoan gaude.

Prozesuaren hastapenei dagokienez, gainera, metafora atomikoak erakunde politiko lokalei garrantzi zentrala ematen badie ere, aurreneko bulkada, eta prozesuaren mantenuan, beste eragileek ere protagonismo nabaria izan lezakete, besteak beste, erakundeei prozesu hau martxan jartzeko aldarrikatzeko garaian beraingandik suertatu ezean.

Argi dago, artikulua honek eskaintzen duen tartean ezin adieraz daitekeela EEIGEn oinarritzen den *gobernantza*-eredu berri honetara igarotzeak dakarren egituren sakoneko eraldaketa. Nolanahi ere, hiruzpalau zertzelada argi utzi nahiko genituzke artikulua amaitu aurretik.

Egitura likidoak garatzeko pare bat zertzelada?

Esan bezala, ezinezkoa da egitura likidoen bidean jartzeko EEIGEn oinarritzen den prozesuaren oinarriak modu sakon batean garatzea. Nolanahi ere, erabaki-hartze informatuak eta erakunde-ikaskuntza oinarri, eragile ezberdinek helburu komunetan lorpenen efizientzian aurrera egiteko, jardunbide gako batzuk planteatu nahi genituzke amaitu aurretik.

- I. Lehenik eta behin, jakina badirudi ere, kirolean eta kirolaren bitartez (García Ferrandok [2005] bereizi bezala) lortu nahi diren helburuak argi eta garbi finkatu (aliatu posibleekin batera) beharko lirateke inplikatuak dauden, edo egon litezkeen, eragile guztiekin batera. Azken batean, Senecak esan bezala «ez baitago aldeko haizerik nora doan ez dakienarentzat».
- II. Helburuok behin finkaturik, haiek lortzeko moduak adierazi eta partekatzeko ere berebiziko garrantzia izango luke. Zentzu horretan, *aldaketaren teorian* (Chen, 1990; Weiss, 1997; Funell eta Rogers, 2011 eta abar) oinarrituriko perspektiba garatzea ezinbestekoa litzateke politiken eta programen mekanismoan ezagutza partekatu bat garatze aldera eta, nola ez, programen eta politiken efizientzia ikaskuntzatik garatze aldera.
- III. Helburu hauen eta helburuok lortzeko mekanismoen inguruko jarraipen eta ebaluatze-sistemaren eraikuntza partekatua. Zentzu horretan, berebiziko garrantzia edukiko luke bideragarria den sistema bat egituratzeak hastapenetatik lortu nahi diren helburuekiko adierazle zein irizpideak finkatuz. Hargatik, sistema horrekiko eragileengan jabetza-sentimendua sustatzea ezinbestekoa da. Azken batean, hau izango baita hobekuntzara bideraturiko ikaskuntzarako termometroa.
- IV. Azkenik eta paraleloan, EEIGE prozesuan behar bezalako abileziak sustatzeko trebatze-diseinu eraginkor bat garatu beharko litzateke eragile guztiak kontzientziatu eta ahalduntze aldera.

Azken batean, laburki esanda, gure planteamendua da kirolak gizartean paper bat jokatu badu, alegia, sozialki arduratsua den paper bat jokatu badu, kirolean egin izan den alderantzizko esku-hartze makiavelikoa iraulita izango da, hau da, egiteak helburuak lorrarazten laguntzen duelako ustea iraulita izango da, azken batean, kirolak potentzial asko baititu, bai, baina onak bezain txarrak.

Hargatik, kontzientzia-hartze berri batez ariko ginateke non, behingoz, kirolaren onuren inguruan saldu izan diren mitologiak hankaz gora jarri eta egiaz gizartera-erakuntza egin lezaketek ekarpenez ariko ginatekeen.

Ondorioak

Azken batean, laburki esate aldera, argi dagoena zera da, kirola serio hartu nahi badugu, hau da, jokoan dagoenaren inguruan kontziente izan nahi badugu, errealitate horrekiko erabilgarria izango den informazioa eskuratu beharko dugula.

Politikagintza modu berrien beharra geroz eta nabarmenagoa den gure testuinguruan, eragile politikoek gardentasunean oinarritutako esku-hartze parte-hartzaileagoak sustatu beharrean ikusten dute beren burua. Hori bai, informazioa, ez eta informazio-sistemen eskasia, arazo ez den (des)informazioaren gizartean, *infoxikazioa* nola ekidin da erronka nagusia. Hau da, nola igaro, informazio gordinetik ikasketa esanguratsuetara galtzeko eta irabazteko dagoenaren gaineko arduraren partekatuz.

Gure planteamendua da, erronka horren aurrean, eta bereziki mitologiak gain izan den kirol-politikagintzaren inguruan (politikagintza kontzeptua, herritar bakoitzetik politikarietara, eragile ezberdinetatik pasatuta doan zentzu zabalean ulertua), ezinbestean argia jarri beharra dagoela kirol-sistema osoan zehar *erabakihartze informatua* eta *erakunde-ikaskuntzak* oinarri dituzten EEIGE prozesuak abian jarriaz erakunde geroz eta likidoagoak lortze aldera.

Zentzu horretan, kirolak herrigintzan jokatzeko duen, eta joka lezakeen, pape-raren inguruan geure buruari galdetzea eskatzen du, maiz kontrajarriak diruditen herri-kirol eta (hiri) kirol kontzeptuek bat egite aldera. Azken batean, pentsatu beharra baitauekagu zenbateraino egungo euskal pilota, esaterako, herri-kirola ala (hiri) kirola den, baina baita ere, surfa, esaterako, zenbateraino herri-kirola ala (hiri) kirola den, edota, sortuko diren etorkizuneko kirol-jarduera guztiak, herri-kirol ala (hiri) kirol izango diren. Zerk bereizten du, beraz, jarduera bat herri-kiroltzat ala (hiri) kiroltzat jotzeko? Kirolaren errealitate eta erabilera sozial arduratsuekin bat egiten ez duen ikusmolde itxi batek agian.

Amaitzeko, kirola, modu arduratsu bezain emankorrean baliatu nahi badugu eta, horretarako, gure gizartean errotu nahi badugu, gure bizimoduak, ohiturak, aktiboagoak bilakaturik, beharbada, politika jolas eta kirola jokotzat hartzetik, politika joko eta kirola jolastzat hartzera igaro beharko genuke. Betiere, gure herritarren ongizatea, zentzu integral batean, bermatzea badugu jomuga.

Erreferentzia bibliografikoak

- Aldaz, J. (2010): *La Práctica de Actividad Física y Deportiva (PAFYD) de la población adulta de Gipuzkoa como Hábito Líquido*, Servicio Editorial de la UPV/EHU, Leioa.
- Aldaz, J.; Dorado, A.; Jiménez, P. J. eta Vilanova, A. (ed.) (2013): "Responsabilidad Social, Ética y Deporte", *XII Congreso AEISAD. Investigación Social y Deporte*, 11, Ibersaf Industrial, Madril.
- Bauman, Z. (2004): *Modernidad líquida*, Fondo de Cultura Económica de Argentina, Buenos Aires.
- Cerrillo i Martínez, A. (koord.) (2005): *La Gobernanza hoy: 10 textos de referencia*, Instituto Nacional de Administración Pública, Madril.
- Coalter, F. (2007): *A wider social role for sport. Who's keeping the score?*, Routledge, New York.
- Chen, H. T. (1990): *Theory-Driven Evaluations*, Sage Publication, Newbury Park (Kalifornia).
- Dorado, A. (2012): "Indi-Gestión por comodidad". *Deporcam. La palestra del círculo*, Inacua & Ferrovia Servicios, S.A., Madril.
- Europar Komisioa, (1999): *EVALSED: The resource for the evaluation of Socio-Economic Development*. Comisión Europea, <http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/evalsed/index_en.htm>.
- , (2007): *Libro Blanco del Deporte*, Publications Office, Luxemburgo.
- , (2011): *Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. Desarrollo de la dimensión europea en el deporte*, <<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0012:FIN:ES:PDF>>.

- Funell, S. C. eta Rogers, P. J. (2011): *Purposeful Program Theory: Effective Use of Theories of Change and Logic Models*, Wiley, New York.
- García Ferrando, M.; Puig, N. eta Lagardera, F. (konp.) (2005): *Sociología del deporte*, Alianza Editorial, Torrejón de Ardoz, Madril.
- Habermas, J. (2001): *Teoría de la acción comunicativa*, Taurus, Madril.
- McDonald, B.; Rogers, P. eta Kefford, B. (2003): "Teaching People to Fish? Building the Evaluation Capability of Public Sector Organizations", *Evaluation*, 9(1) bol., 9-29.
- Nicholson, M.; Hoyer, R. eta Houlihan, B. (2011): *Participation in sport: international policy perspectives*, Routledge, Londres, New York.
- Nicholson, M. eta Hoyer, R. (2008): *Sport and Social Capital*, Butterworth-Heinemann, Burlington.
- Patton, M. Q. (2008): *Utilization-focused evaluation (4th ed.)*, CA: Sage, Thousand Oaks.
- Pawson, R. (2006): *Evidence-based Policy. A Realist Perspective*, CA: Sage, Thousand Oaks.
- Preskill, H. eta Boyle, S. (2008): "A Multidisciplinary Model of Evaluation Capacity Building", *American Journal of Evaluation*, 29 (4) bol., 443-459.
- Preskill, H. eta Torres, R.T. (1999a): *Evaluative Inquiry for Learning in Organizations*, CA: Sage, Thousand Oaks.
- Preskill, H. eta Torres, R.T. (1999b) "Building Capacity for Organizational Learning Through Evaluative Inquiry", *Evaluation*, 5(1) bol., 42-60.
- Puig, N. eta Heinemann, K. (1991) "El deporte en la perspectiva del siglo 2000", *Papers*, **38**, 18.
- Weiss, C. H. (1997): *Evaluation (2nd Edition)*, Prentice Hall, New York.
- Wheaton, B. (2004): *Understanding Lifestyle Sports. Consumption, identity and difference*, Routledge, Padstow (Great Britain).
- Zulaika, J. (2003): *Bertsolaritzaz Bi Saio*, Bertsolari Liburuak, Andoain (Gipuzkoa).

